



# ADIERAZLE GALERIA NAGUSIA

**g**aindegia

Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia

2021eko ekainean argitaratuta

EUSKAL  
HERRIA

20

21

 **gaindergia**

Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia



## Aurkibidea

HITZAURREA.....	4
-----------------	---

## DEMOGRAFIA.....5

1.1. Biztanleria.....	6
1.2. Biztanleriaren dentsitatea.....	8
1.3. Biztanleriaren adin egitura.....	9
1.4. Jaiotzak.....	12
1.5. Heriotzak.....	13
1.6. Ezohiko hilkortasuna osasun larrialdian [gehigarri berezia].....	14

## EKONOMIA.....16

2.1. BPG: urte arteko hazkunde erreala.....	17
2.2. BPG biztanleko.....	19
2.3. Balio erantsiaren egitura.....	20
2.4. Ondasun eta zerbitzuen esportazioak.....	22
2.5. Esportazio eta inportazioen merkataritza-balantza.....	24
2.6. Lanaren produktibitatea.....	26
2.7. Errenta erabilgarria.....	27
2.8. Ikerketa eta Garapenerako gastua.....	28

## GIZARTEA.....29

3.1. Gutxienez bigarren mailako formazioa duen biztanleria.....	30
3.2. Herritarren jarduera.....	31
3.3. Enplegu-maila.....	33
3.4. Langabezia-maila.....	35
3.5. Pobrezia, 'Europa 2020' estrategiako neurketaren arabera.....	37
3.6. Gizarte babeseko gastua.....	39



## Hitzaurrea

Esku artean duzu Gaindegiak 2007 urteaz geroztik eguneratzen diharduen adierazle zerrenda. Egitasmo honen helburua egiturakotzat jotzen diren adierazleak Euskal Herriarentzat kalkulatu eta Europako estatuekin alderagarri egitea izan da urte hauetan.

Bistan da ez direla gure herriak ezagutu behar dituen adierazle guztiak, baina hemen bildutakoak gure herria ingurukoekin alderatzeko baliagarriak dira. Atalez atal emaitzak taula eta infografia bidez eskaintzearekin batera, txostenak datuen gaineko irakurketa labur bat eskaintzen du. Behategi honen ibilbidean herritarrei lurraldea ulertzeko baliabideak eskaintzea izan da helburu nagusietako bat eta, oraingoan ere, helburu horri eusten ahalegindu gara.

Hauxe izango da Gaindegiaren Behategiak bolada batez argitaratzen duen azken edukia, bizi dituen zailtasun ekonomikoengatik jarduerak eten beharrean baita. Ez dakigu noiz argitaratuko dugun egiturako adierazleen hurrengo bilana, ez dakigu atzera berriro behategia hau abian jarriko den ere. Balio beza lan honek, ordea, abiadura bizian aldatzen ari den mundu honetan Euskal Herria zertan den ezagutzeko, baina batez ere, balio beza, herrigintzan eraginkortasunez jarduteko falta zaigun guztiarekin jabetzeko, eta ahalik eta bizkorren osatzeko. Ziur gaude, Gaindegiaren Behategiak atzera bere bideari ekiten ez badio egitasmo indartsuagoak bidean direlako izango dela.

Eskerrik asko, lan honen oinarriak jartzen lagundu diguzuenoi. Eta zuri, irakurle, baliagarri gerta dakizula.








# Demografia Ekonomia Gizartea

Iturria: EUSTAT, INE, INSEE eta EUROSTAT. GAINDEGIA.  
Oharra: 2021eko ekainean berrikusitako datuak.



## 1.1. Biztanleria

Biztanleriaren urte arteko hazkunde-tasa (%).  
2010/2020 epealdia.



## Etorkin fluxuei esker egin du gora biztanleriak

Seigarren urtez, biztanleriak gora egin du. Euskal Herriak 22.622 biztanle irabazi ditu azken urtean (+%0,71). Hazkunde demografikoa indartzen ari da, jaiotza tasa apala izan arren, Euskal Herrikan kanpo jaiotako etorkin berriei esker.


Ipar Euskal Herriko kostaldeko herrietan populazio hazkundeak bere horretan jarraitzen du eta kostatik gero eta barnealderago eragiten du. Horrek intzidentzia nabarmena du Lapurdiko biztanleriaren hazkunderan. Bien bitartean, Zuberoak mende oso bat darama biztanleria galeran murgilduta.

Nafarroa Garaian indarrez gora egin du biztanleria bolumenak, baina lurralde desorekak indartuz. Iruñerriak barne migrazioa eta atzerriko herritarrak bereganatu ditu. Nafarroako Erriberak eta Goi Erriberak, ordea, nagusiki atzerriko herritarrak bereganatzen dituzte.



Atzerritarrek eta belaunaldi gazteek hirigunera jotzen dute


Biztanleriaren batez besteko urteko hazkunde-tasa.  
2010/2020 epealdia.



## 1.1. Biztanleria

# Herritarren %17,4 baino ez da bizi landa eremuan

Biztanleria osoa (kopuru gordina).  
2020 urtea.



Euskal herritarren %55,4 hiriguneetan bizi da eta %27,3 bitarteko hiriguneetan. Gainontzeko %17,4k landa eremuan du bizilekua. Hirigune eta bitarteko hiriguneen pisuagatik Euskal Herriak Herbeheretakoaren antzeko lurralde egitura du. Kasu bietan, biztanleriaren %10-18k baino ez du bizilekua landa eremuan. Ez dira asko munduan zehar gisa horretako populazioaren geografia duten herrialdeak.

2020 urtean hiriguneek, bitarteko hiriguneek eta landa eremuak herritarrak bereganatu dituzte. Nolanahi, hiriguneen nagusitasuna berrindartzen ari da azken hiru urteotan.

Euskal Herria 47 eskualde administratibotan banatzen da. Azken urtean biztanle kopuruak behera egin du horietatik sei eskualdetan; iaz, hamar izan ziren biztanleria galdu zuten eskualdeak. Besteak beste, Araban edo Bizkaian aspaldiko despoblazio joerak eten egin dira.




Biztanleria osoa (milaka pertsona).

	2000	2005	2010	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Araba	287,81	301,76	319,33	325,53	325,95	328,42	330,72	333,40	335,81
Bizkaia	1.133,10	1.136,57	1.154,10	1.149,11	1.147,90	1.148,61	1.149,91	1.152,93	1.159,72
Gipuzkoa	679,37	688,71	707,26	716,83	717,83	719,28	720,59	723,58	727,12
Lapurdi	220,50	228,47	237,08	249,85	252,49	254,17	256,88	260,19	263,18
Nafarroa Beherea	28,51	29,25	30,04	31,49	31,64	31,75	31,78	31,83	31,83
Nafarroa Garaia	543,37	593,47	636,92	640,48	640,65	643,23	647,55	654,21	661,20
Zuberoa	15,52	15,43	15,30	15,10	15,00	14,87	14,78	14,75	14,67
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>2.908,18</b>	<b>2.993,66</b>	<b>3.100,02</b>	<b>3.128,38</b>	<b>3.131,46</b>	<b>3.140,33</b>	<b>3.152,22</b>	<b>3.170,89</b>	<b>3.193,51</b>
EB-27	428.474	434.416	440.660	443.667	444.803	445.534	446.209	446.446	447.320
Katalunia	6.283,10	6.870,81	7.463,49	7.396,99	7.408,29	7.441,28	7.488,72	7.566,43	7.652,35
Finlandia	5.171,30	5.236,61	5.351,43	5.471,75	5.487,31	5.503,30	5.513,13	5.517,92	5.525,29
Eskozia	5.067,42	5.096,77	5.246,56	5.360,27	5.388,87	5.414,72	5.436,93	5.454,24	5.494,00




## 1.2. Biztanleriaren dentsitatea

Biztanleriaren dentsitatea (bizt./km<sup>2</sup>).  
2020 urtea.




Biztanleriaren dentsitatea (bizt./km<sup>2</sup>).  
2020 urtea.



Euskal Herria, 20.886 km<sup>2</sup>-ko lurraldea izanik, aniztasun handiko lurraldea da. Biztanleriaren %82,6 lurraldearen %15,1n metatzen da. Biztanleria dentsitatea, beraz, tokian toki aldatzen da. Euskal herritarren %56 Bilbo Handian, Euskal Kostaldea-Aturrin, Bidasoa Beherean, Donostialdean edo Iruñerrian bizi da. Biztanleria dentsitate handiko eremuak dira.

2021-27 epealdirako Eskualde Garapenerako Europako Funtsek (EGEF) 12,5 bizt./km<sup>2</sup>-ko dentsitatea despopulazio atalase gisa hartu dute. Euskal Herrian bost dira dentsitate maila horren azpitik kokatzen diren eskualdeak: Nafarroako Pirinioak, Arabako Mendialdea, Trebiñu, Nafarroako Aurrepirinioak eta Arabako Ibarrek.

Biztanleriaren dentsitatea (bizt./km<sup>2</sup>).  
2020 urtea.



### 1.3. Biztanleriaren adin egitura

EUSKAL HERRIA.  
2020 urtea.




(\* ) 2017 urtea.



### 1.3. Biztanleriaren adin egitura

## Iparralden 0-14 urte bitartekoek presentzia Hegoalden baino handiagoa da

0-14 urte bitarteko biztanleria (%).  
2020 urtea.




Euskal Herrian 449.800 dira 14 urtetik beherako herritarrak eta biztanleriaren %14,1 osatzen dute (2020). Milurteko hasieran 365.720 ziren eta biztanleriaren %12,6 osatzen zuten.

Egun adin tarte honen presentzia zertxobait handixeagoa da landa eremuan hirigunean baino. Herrialdeka, Nafarroa Beherean, Nafarroa Garaian eta Lapurdin gainontzeko lurraldeetan baino presentzia handiagoa dute. Bidaxune, Hazparne, Errobi Aturri, Iholdi Oztibarre edo Errobi dira 0-14 urte bitarteko herritarren presentzia handiena duten Euskal Herriko eskualdeak. Hauek, ordea, oso urriak dira Nafarroako Pirinioan.

Europar Batasunean 14 urtetik beherakoek biztanleriaren %15,1 osatzen dute, Euskal Herrian baino puntu bat gehiago. Belaunaldi gazteenek Euskal Herriaren pareko pisua dute Portugalen (%13,6), Alemanian (%13,7), Grezian (%14,3) eta Kroazian.

2020 urtea.



0-14 urte bitarteko biztanleria (%).


	2000	2005	2010	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Araba	12,3	12,2	13,5	14,7	14,9	15,0	15,0	14,9	14,7
Bizkaia	11,5	11,6	12,7	13,4	13,4	13,4	13,3	13,1	12,9
Gipuzkoa	12,5	12,9	14,1	14,7	14,7	14,7	14,6	14,4	14,1
Lapurdi (*)	16,3	15,6	15,2	15,3	15,2	15,2	15,2	15,2	15,2
Nafarroa Beherea (*)	15,7	16,3	17,1	17,3	17,1	16,9	16,9	16,9	16,9
Nafarroa Garaia	13,3	14,1	15,3	15,7	15,7	15,7	15,6	15,5	15,3
Zuberoa (*)	14,4	13,9	14,4	13,9	13,8	13,9	13,9	13,9	13,9
EUSKAL HERRIA	12,6	12,8	13,8	14,5	14,5	14,5	14,4	14,3	14,1
EB-27	-	16,0	15,4	15,3	15,3	15,2	15,2	15,2	15,1
Katalunia	13,8	14,2	15,3	16,0	15,9	15,8	15,7	15,5	15,3
Finlandia	18,2	17,5	16,6	16,4	16,3	16,2	16,2	16,0	15,8
Eskozia (**)	18,3	17,1	16,3	15,9	15,9	15,9	15,9	15,9	-

(\*) Ipar Euskal Herriko azken datuak 2017 urteari dagozkio. Euskal Herrirako azken datuak horien gainean kalkulaturuta daude.


### 1.3. Biztanleriaren adin egitura

Euskal herritarren %22,1k 65 urtetik gorako adina du

65 urtetik gorako biztanleria (%). 2020 urtea.



2020 urtea.



Euskal Herrian 705.880 dira 65 urtetik gorako herritarrak. Biztanleriaren %22,1 osatzen dute egun. 2000 urtean 516.760 ziren eta biztanleriaren %17,8 osatzen zuten.

Adineko herritarren presentzia garrantzitsua da Euskal Herrian, nabarmen Ipar Euskal Herrian (%24,4) eta, bereziki, Zuberoan (%28,6). Hauen presentzia, aldiz, murriztagoa da Nafarroa Garaian eta Araban. Eskualdeka, 65 urtetik gorakoen proportzioa oso handia da Salbaterraldean (%38,4), Nafarroako Pirinioan (%33,3) edo Zangozaldean (%27,1). Egoera bestelakoa da Trebiñun, Plentzia-Mungian, Argako Haranetan edo Iruñerrian.

EB-27n adinekoen kopuruak gora egin du azken hamarkadetan, egun herritarren %20,6 osatzeraino. Euskal Herriaren pareko proportzioa dute Portugalen (%22,1), Grezian (%22,3), Finlandian (%22,3) edo Alemanian (%21,8). Italian dago adinekoene presentzia handiena (%23,2). Txikiena, aldiz, Irlandan (%14,4).

65 urtetik gorako biztanleria (%).

	2000	2005	2010	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Araba	15,4	16,2	17,3	19,5	19,8	20,1	20,5	20,7	21,1
Bizkaia	17,8	18,9	19,8	21,7	22,0	22,2	22,5	22,7	22,9
Gipuzkoa	17,1	18,0	19,0	21,0	21,3	21,6	21,9	22,2	22,4
Lapurdi (*)	20,6	21,3	21,8	23,4	23,9	24,1	24,1	24,1	24,1
Nafarroa Beherea (*)	22,3	22,5	22,0	23,5	24,0	24,4	24,4	24,4	24,4
Nafarroa Garaia	18,2	17,5	17,4	18,9	19,2	19,4	19,5	19,6	19,8
Zuberoa (*)	25,4	25,8	25,9	27,8	28,2	28,6	28,6	28,6	28,6
EUSKAL HERRIA	17,8	18,4	19,1	20,9	21,2	21,5	21,7	21,9	22,1
EB-27	-	16,7	17,6	19,0	19,3	19,7	20,0	20,2	20,6
Katalunia	16,9	16,4	16,4	18,4	18,6	18,8	19,0	19,1	19,2
Finlandia	14,8	15,9	17,0	19,9	20,5	20,9	21,4	21,8	22,3
Eskozia (**)	15,7	16,3	16,7	18,2	18,4	18,6	18,8	19,0	-


(\*) Ipar Euskal Herriko azken datuak 2017 urteari dagozkie. Euskal Herrirako azken datuak horien gainean kalkulaturuta daude.



## 1.4. Jaiotzak

# Milurteko honetako jaiotza tasarik txikiena erregistratu du Euskal Herriak

Jaiotzak batez beste urtean (mila biztanleko). 2014/2019 epealdia.




Jaiotzen kopurua gero eta murriztagoa da Euskal Herrian. 2019 urtean 23.483 jaiotza erregistratu ziren, hau da, mila biztanleko 7,4 jaiotza. Milurteko berrian erregistraturiko datu apalena da. Ez dirudi 2020 urtean joera aldaketa egon denik, behin-behineko datuen arabera, urtebete lehenago baino 1.040 jaiotza gutxiago zenbatu baitira Hego Euskal Herrian. EB-27ko jaiotza tasa Euskal Herrikoa baino handiagoa da (9,3).

Aldagai desberdinek eragin dute jaiotzen gainbehera Euskal Herrian. Ugalkortasunari buruzko azken inkestan, familia eta lana uztartzeko ezintasuna, arrazoi ekonomikoak edota bestelako bizi proiektuak lehenestea daude haurrak ez izateko arrazoi nagusien artean (2018).

Ipar Euskal Herrian familia eta seme-alabei bideratutako gizarte babeseko gastu-mailak Hego Euskal Herrikoa laukoizten du. Ipar Euskal Herrian ugalkortasuna handiagoa izateko arrazoi nagusia izan daiteke.

2019 urtea.



### Jaiotzak (mila biztanleko).

	2000	2005	2010	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Araba	8,7	9,3	10,6	10,2	9,8	9,5	9,1	8,2	7,7
Bizkaia	7,8	8,9	9,2	8,5	8,1	8,0	7,4	6,9	6,7
Gipuzkoa	8,8	9,9	10,2	8,9	8,9	8,4	7,8	7,6	7,1
Lapurdi	11,0	10,3	9,9	9,9	9,4	9,5	9,1	8,8	8,8
Nafarroa Beherea	9,7	11,4	10,4	9,3	9,7	8,2	8,2	9,6	8,4
Nafarroa Garaia	9,7	10,4	10,6	9,6	9,4	9,2	8,9	8,3	8,2
Zuberoa	8,7	8,8	10,1	7,6	7,3	7,6	6,5	6,8	6,5
EUSKAL HERRIA	8,7	9,6	9,9	9,1	8,8	8,6	8,1	7,7	7,4
EB-27	10,5	10,3	10,4	9,8	9,8	9,8	9,7	9,5	9,3
Katalunia	10,1	11,6	11,3	9,7	9,5	9,3	9,0	8,5	8,1
Finlandia	11,0	11,0	11,4	10,5	10,1	9,6	9,1	8,6	8,3
Eskozia	10,5	10,7	11,2	10,6	10,2	10,1	9,7	9,4	-




## 1.5. Heriotzak

### 2013 urteaz geroztik Euskal Herriko heriotza kopuruak jaiotzena gainditzen du


2019 urtean 30.822 heriotza erregistratu ziren, hau da, mila biztanleko 9,6 heriotza. Heriotza tasa horren gainerik kokatzen dira Zuberoa (14,4), Nafarroa Beherea (13,4), Lapurdi (10,5) eta Bizkaia (10,4). Eskualdeka, hilkortasuna are handiagoa da Arabako Mendialdean (17,9), Nafarroako Pirinioan (16,2) edo Iholdi Oztibarren (15,9). Landa eremuan gainontzeko eremuetan baino handiagoa da, oro har.

2019 urtean EB-27ko heriotza tasa Euskal Herrikoa baino handiagoa izan zen. Belgikak (9,5) edo Austriak (9,4) Euskal Herriaren pareko hilkortasuna erregistratu zuten. Europan Bulgariak du heriotza tasa handiena (15,4) eta Irlandak txikiena (5,3). Osasun larrialdiaren testuinguruan, ordea, hilkortasun tasak gora egin du. Behin-behineko datuen arabera, 2020 urtean Euskal Herriko heriotza tasak 1,5 puntu egin du gora. Hau da, mila biztanleko 11,1 heriotza erregistratu dira.

Heriotzak batez beste urtean (mila biztanleko). 2014/2019 epealdia.



2019 urtea.




### Heriotzak (mila biztanleko).

	2000	2005	2010	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Araba	7,7	8,3	7,7	7,7	8,5	8,3	8,6	8,4	8,3
Bizkaia	9,0	9,5	9,4	9,7	10,3	10,2	10,3	10,4	10,4
Gipuzkoa	8,6	8,9	8,7	9,1	9,7	9,4	9,7	9,8	9,5
Lapurdi	9,6	10,8	10,5	10,2	11,0	10,7	11,0	11,3	10,5
Nafarroa Beherea	15,6	11,6	12,0	12,9	12,4	12,0	14,0	13,0	13,4
Nafarroa Garaia	9,1	8,8	7,8	8,6	8,9	8,9	9,1	9,0	8,5
Zuberoa	11,3	14,1	14,1	15,1	14,9	14,2	15,1	14,5	14,4
EUSKAL HERRIA	8,9	9,2	8,9	9,2	9,8	9,7	9,9	9,9	9,6
EB-27	10,0	9,9	9,9	9,9	10,4	10,2	10,5	10,5	10,4
Katalunia	9,0	9,0	8,0	8,3	8,8	8,5	8,9	8,9	8,5
Finlandia	9,5	9,2	9,5	9,6	9,6	9,8	9,8	9,9	9,8
Eskozia	11,4	10,9	10,3	10,1	10,7	10,5	10,6	10,7	-

## 1.6. Ezohiko hilkortasuna osasun larrialdian [Gehigarri berezia]

Ezohiko hilkortasun gordina adinaren arabera (metatua).  
Euskal Herria, 2020 urtea astez aste.



Osasun larrialdiaren testuinguruan 2020. urteko ezohiko hilkortasunak joera desberdinak izan ditu adin taldearen arabera. COVID-19aren urteko hedadura joerei jarraituz, 60 urtetik gorako biztanleriaren eta batez ere 70 urtetik gorakoen heriotza bolumena nabarmen handitu da. Izan ere, 2020an 2019an baino 70 urtetik gorako 3.776 euskal herritar gehiago hil dira. Bestela esanda, 2020ko ezohiko heriotzen %88,6 70 urtetik gorako pertsonen dagokie.

Hilkortasunaren ezohiko gorakada 2020ko martxoaren 16-22 bitarteko astean hasi zen. Hilkortasun handieneko epealdia martxoaren 16tik apirilaren 19ra bitartean erregistratu zen. Urtebete lehenagoko datuekin alderatuta, heriotzen hazkundea handia izan da Nafarroa Garaian (+%22,4), Araban (+%21,1), Gipuzkoan (+%13,7) eta Bizkaian (+%11,4). Lapurdin hilkortasunaren hazkundea apalagoa izan da (+%5,7). Iparraldeko barnealdean ez da ezohiko joerarik antzematen.

### Ezohiko hilkortasuna. 2020 urtea.

	HERIOTZA GORDINAK			Urte arteko hazkundea (%)	Ezohiko hilkortasuna (mila biztanleko)
	2019	2020	Urte arteko hazkundea		
OROTARA	30.822	35.086	4.264	13,8	1,3
Emakumeak	15.524	17.648	2.124	13,7	1,3
Gizonak	15.298	17.407	2.109	13,8	1,4
Daturik gabe	0	31	-	-	-
0-19 urte	126	117	-9	-7,1	-0,0
20-29 urte	85	75	-10	-11,8	-0,0
30-39 urte	168	180	12	7,1	0,0
40-49 urte	547	586	39	7,1	0,1
50-59 urte	1.567	1.640	73	4,7	0,2
60-69 urte	3.079	3.446	367	11,9	0,9
70-79 urte	5.191	6.194	1.003	19,3	3,5
80-89 urte	11.150	12.693	1.543	13,8	8,5
90 urte +	8.909	10.139	1.230	13,8	27,8
Daturik gabe	0	16	-	-	-
Araba	2.729	3.306	577	21,1	1,7
Bizkaia	11.933	13.296	1.363	11,4	1,2
Gipuzkoa	6.847	7.784	937	13,7	1,3
Lapurdi	3.257	3.442	185	5,7	0,7
Nafarroa Beherea	388	345	-43	-11,1	-1,4
Nafarroa Garaia	5.545	6.786	1.241	22,4	1,9
Zuberoa	123	127	4	3,3	0,3
HEGO EH	27.054	31.172	4.118	15,2	1,4
IPAR EH	3.768	3.914	146	3,9	0,5







1.6. Ezohiko hilkortasuna osasun larrialdian

[Gehigarri berezia]

Ezohiko hilkortasunaren hazkunde-tasa (%).  
2020 urtea (\*).



Ezohiko hilkortasunaren hazkunde-tasa (%).  
2020 urtea (\*).



(\*) 2019 urteko hilkortasunarekiko alderaketan.

2020 urtean ezohiko hilkortasunak gorakada garrantzitsua izan du Europan, baina denboran eta lurraldeka joera desberdinak izan dira. Udaberrian ezohiko hilkortasunak gogor kolpatu zuen Italiako iparraldea, Iberiar goi-lautadako erregioak, Katalunia, Frantziako iparraldea edota Euskal Herria. Udazkenean, ordea, Albania, Bulgaria, Polonia, Eslovenia, Txekia edo Errumaniak nozitu zuten heriotzen hazkunde handiena.

Euskal Herrian inoiz ezagutu gabeko hilkortasuna izan da 2020 urtean, Suitzaren parekoa. Ez da Europako lurralde bakarra izan. Europan ezohiko hilkortasunagatik kolpatuenak izan diren hamairu erregioak Italian edo Espainian kokatzen dira. Italian Bergamo, Cremona, Lodi, Piacenza, Brescia eta Lecco eta Espainian Segovia, Madril, Guadalajara eta Soria izan dira osasun larrialdiaren ondorio latzenak nozitu dutenak.



# Demografia

# Ekonomia

# Gizartea


Iturria: EUSTAT, NASTAT, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, INE, Espainiako Industria, Turismo eta Komertzio Ministerioa, INSEE, EUROSTAT, Nazioarteko Diru Funtza, IDESCAT, Eskozia eta Finlandiako Gobernuak. GAINDEGIA.

Oharra: 2021eko ekainean berrikusitako datuak.




## 2.1. BPG: urte arteko hazkunde erreala

BPGaren urte arteko hazkunde-tasa (%).  
Euskal Herria, 2000/2022 epealdia.



Osasun larrialdiak munduko ekonomia astindu eta zenbait eraldaketa prozesuren abiadura azkartu du



Sei urtez hazi ostean Euskal Herriko BPG barne produktu gordina %9,2 apaldu da 2020an azken hamarkadetan erregistraturiko atzeraldi handiena eraginez. Ekonomiaren gainbehera handiena udaberrian gauzatu zen arren, 2020ko lehen hiru hilabeteetako datuek ziklo baten amaiera iragarri zuten. 2009an ere atzeraldi nabarmena nozitu zuen euskal ekonomiak, baina orduan %3,7koa izan zen uzkurdura.

Kolpe handiena hartu duen lurraldea Euskal A.E. izan da (-%9,5). Halere, Nafarroa Garaiko (-%8,3) eta Ipar Euskal Herriko (-%8,3) BPGek bilakaera paretsua izan dute. Ipar Euskal Herriko BPGaren bilakaeraren datu ofizialik ez dagoen aldetik Frantziako hazkundeak hartu da kontutan datua kalkulatzeko. Baionako Merkataritza Ganbarak ere ez du daturik eman, baina oro har ziurgabetasuna nagusitu arren enpresa batetik bestera egoera aldakorra izan dela azpimarratu du.

Osasun larrialdiak munduko ekonomia handienak atzeraldian jarri ditu. Nazioarteko Diru Funtzaren behin-behineko datuen arabera, BPGak %3,3ko atzeraldia izan du mundu mailan. Gutxi dira atzeraldian murgildu ez diren herrialdeak, baina egon badaude, eta gehientsuenak Ekialdeko Asian eta Afrikan kokatzen dira. Txinak talde horretan sartzea eta bere BPGa %2,3 haztea lortu du, 1976 urtetik erregistraturiko hazkunde maila txikienarekin bada ere. AEBko BPGak, ordea, %3,5ko atzeraldia izan du. Ekonomiaren osasuna herritarrenaren gainetik jartzeko Trumpen estrategiak huts egin du eta ez da izan asmo horretan huts egin duen herrialde bakarra.

BPGaren urte arteko hazkunde-tasa (%).


	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021 (a)	2022 (a)
EUSKAL HERRIA	4,0	1,3	-3,7	0,9	0,7	-1,7	-1,4	1,5	2,8	3,0	2,8	3,0	2,2	-9,2	6,6	5,8
EB-27	3,1	0,6	-4,3	2,2	1,8	-0,7	0,0	1,6	2,3	2,0	2,8	2,1	1,6	-6,1	3,7	3,9
Katalunia	3,4	-0,5	-4,2	0,6	-0,5	-3,4	-1,0	1,8	3,8	3,4	3,6	2,5	1,9	-11,5	6,0	5,2
Finlandia	5,3	0,8	-8,1	3,2	2,5	-1,4	-0,9	-0,4	0,5	2,8	3,2	1,3	1,3	-2,8	2,8	2,0
Eskozia	1,4	0,4	-3,2	2,1	3,9	0,4	3,2	2,4	0,2	0,5	1,6	0,9	0,7	-9,6	5,5	5,8
Alemania	3,0	1,0	-5,7	4,2	3,9	0,4	0,4	2,2	1,5	2,2	2,6	1,3	0,6	-4,8	3,2	3,1
AEB	1,9	-0,1	-2,5	2,6	1,6	2,2	1,8	2,5	3,1	1,7	2,3	3,0	2,2	-3,5	6,4	3,5
Txina	14,1	9,7	9,3	10,8	9,5	7,9	7,8	7,4	7,0	6,9	6,9	6,7	5,8	2,3	8,4	5,6
Mundua	5,5	3,0	-0,1	5,4	4,3	3,5	3,5	3,6	3,5	3,3	3,8	3,6	2,8	-3,3	6,0	4,4

(a) Aurrerapena.





## 2.1. BPG: urte arteko hazkunde erreala

BPGaren urte arteko hazkunde-tasa (%).  
2020 urtea




2021 urtea



2020>  
Euskal Herria: **-%9,2**  
EB-27: **-%6,1**  
Alemania: **-%4,8**

2021>  
Euskal Herria: **+%6,6**  
EB-27: **+%3,7**  
Alemania: **+%3,2**




Europar Batasunaren BPGak, aurreko urtearekiko alderaketan, %6,1 puntu egin du atzera. Euskal Herriak baino atzeraldi handiagoa nozitu dute Kataluniak (-%11,5), Espainiak (-%10,8) eta Europar Batasunetik alde egin berri duten Erresuma Batuak (-%9,9) eta Eskoziak (-%9,6). Montenegrok ere gogorki pairatu du turismoaren gabezia (-%15,2). Kontrako posizioan, Irlanda izan da 2020 urtean BPGaren hazkunde positiboa mantendu duen Europako herrialde bakarra (%3,4).

Europako Batzordeak 2021erako BPGaren gainean egindako aurreikuspenak baikorrak dira: EB-27n 3,7 puntuko hazkunde-tasa espero da. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak egindako aurreikuspenetan ere baikortasuna nagusitzen da. Horien arabera, Euskal A.E.k eta Nafarroa Garaiak %6,7 eta %6,5ko hazkundea izan dezakete, hurrenez hurren. Frantzian hazkunde hori %5,5koa izatea espero den neurrian Ipar Euskal Herriak antzerako norabidea izatea espero daiteke. Aurreikuspen horien arabera, beraz, 2021 urtean Euskal Herriko BPGak %6,6ko hazkundea izan dezake. Agertoki ekonomiko horiek txertoen eraginkortasunaren menpe dauden aldetik, ekonomiaren osasuna herritarrenari lotzen zaio.

## 2.2. BPG biztanleko

Barne Produktu Gordina (euro/biztanleko).  
2019 urtea.



## Euskal Herriko lehiakortasun ekonomikoak 2008tik posizioa galdu du Europako erregioen testuinguruan

Euskal Herriko biztanleko BPGa, erosteko ahalmen parekatuan, urtean 35.500 eurokoa da (2019). Europako estatuak erreferentzia gisa hartuta, Euskal Herriak Belgika eta Finlandiaren pareko BPG per capita du. EB-27koa apalagoa da, 31.200 eurokoa. Luxemburgok (81.000), Irlandak (60.200), Norvegiak (47.300) eta Danimarkak (40.500) dute Europako biztanleko BPG maila handiena.

2008 urtean Euskal Herriko biztanleko BPGa 32.000 eurokoa zen. Orduetik gora egin badu ere, ez du Europako beste erregio askoren erritmoan egin: 252 erregioen rankingean, 2008 urtean Euskal Herria 44 postuan zegoen. 2019 urtean, 70 postuan kokatzen da. Euskal Herriko lehiakortasun ekonomikoak, hortaz, bere posizionamendua apaldu du Europako testuinguruan.

Barne Produktu Gordina (euro/biztanleko).


	2000	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
EUSKAL HERRIA	22.000	27.600	30.000	29.900	29.600	29.500	30.500	31.400	32.400	33.800	34.300	35.500
EB-27	18.400	22.000	24.900	25.600	25.700	26.000	26.600	27.500	28.200	29.300	30.200	31.200
Katalunia	21.800	26.700	28.100	27.700	27.400	27.600	28.600	29.900	31.000	32.400	32.700	33.400
Finlandia	22.200	26.200	29.500	30.500	30.200	29.900	29.900	30.500	31.200	32.700	33.700	34.700
Eskoizia	20.200	25.300	25.700	25.900	26.900	27.600	28.700	29.600	28.800	29.200	29.600	-

Oharra: erosteko ahalmen parekatuan.



## 2.3. Balio erantsiaren egitura

Balio erantsiaren egitura jarduera-adarren arabera (%).  
Euskal Herria.



Euskal ekonomiak nortasun industrial handia du baina aspaldian ahultzen ari den ezaugarria da. 2020 urtean, atzeraldi ekonomiko orokorraren inguruan, jarduera-adar guztietan sorturiko ondasun-maila urtebete lehenago baino apalagoa izan da. Edonola ere, sektore ekonomiko guztiek ez dituzte osasun larrialdiaren ondorioak modu berean nozitu. Jarduera-adar nagusien artean industriak, bereziki manufakturakoak ez diren jarduerak (erauzteko jarduerak), izan dute atzeraldi handiena.



Gutxi dira 2009ko eta 2020ko ingurumariaren arteko antzekotasunak. Krisi egoeraren pizgarriak desberdinak izan dira erabat, baina kasu bietan industriak nozitu du sektore ekonomikoen artean atzeraldi handiena. 2020 urtean ekonomiaren atzeraldi orokorra 2009koa baino 2,5 bider handiagoa izan da Euskal Herrian, baina 2009 urtean industria sektoreak pairaturikoaren modukorik ez da gertatu 2020an. Krisi ekonomikoek epe motzeko atzeraldia eragin ezezik, egitura ekonomikoa sakonki eraldatzeko gaitasuna izan ohi dute, horregatik arreta berezia merezi du egun.

Zerbitzuen nagusitasuna indartzen ari da Euskal Herriko egitura ekonomikoan. Honezker, ekonomiaren bi heren baino gehiago zerbitzuei lotuta dago (2020). Eraikuntza sektoreak balio erantsiaren %6,2 sortu du. Urrun da higiezin burbuila Hego Euskal Herrian indarrean zenean eraikuntzak sortzen zuen balio erantsia. Lehen sektorearen presentzia ekonomia egituran, ordea, murrizta eta egonkorra da (%1,5).



## 2.3. Balio erantsiaren egitura

Manufaktura-industriaren balio erantsia (%).  
2020 urtea.



Manufaktura-industriaren ardatz nagusiak erdialdetik ekialdera zeharkatzen du Europa

Aspaldidanik manufaktura-industrian gero eta jarduera gehiago dute Asia ardatz eta, 2009tik aurrerako krisi testuinguruan, horietako asko ahuldu edo desagertu ziren Euskal Herrian. Hala, manufaktura-industriaren pisua ekonomian %23,7 izatetik (2008), bi urte eta gero %21,6 izatera igaro zen. Parametro horietan mantendu da gutxi gora behera 2020 urtea iritsi arte. Nolanahi ere, aldaketa urrunetik dator: 2000 urtean manufaktura-industriaren pisuak Euskal Herriko ekonomiaren %27,8 osatzen zuten.

Manufaktura-industriak Alemaniako ekonomian Euskal Herrikoaren pareko proportzioa du, baina aise handiagoa du Irlandan, Txekian edo Eslovenian. EB-27n, aldiz, manufaktura-industriaren pisua apalagoa da (%16,2). Alemaniatik hasita Europako erdialdetik ekialdera doan manufaktura-industriaren ardatza handia da, estatu azpiko lurraldeei begiraturaz gero. Azken bi hamarkadetan Bulgaria, Polonia, Txekia edota Hungariako zenbait erregio manufaktura-industriaren jardura handitu egin dute. Euskal Herrian nagusitu den joeraren kontrakoa, hain zuzen ere.


Manufaktura-industriaren balio erantsia (%).

	2000	2005	2010	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
EUSKAL HERRIA	27,8	25,8	21,6	21,3	21,2	21,2	21,5	21,5	21,5	21,4	21,2	20,9
EB-27	19,5	17,7	16,1	16,3	16,1	16,4	17,1	17,2	17,1	17,0	16,6	16,2
Katalunia	25,0	19,5	16,4	15,7	16,1	16,5	16,7	16,9	16,7	16,6	16,2	
Finlandia	27,6	24,3	19,4	16,7	16,8	16,8	17,0	16,9	17,6	17,0	16,7	16,0
Eskozia	15,8	12,5	11,7	11,3	11,2	11,3	11,0	10,8	10,4	10,2	-	



## 2.4. Ondasun eta zerbitzuen esportazioak

Ondasun eta zerbitzuen esportazioak helmugaren arabera (mila euro).  
Euskal Herria, 2020 urtea.



2020 urtean Euskal Herriko esportazioak %14,5 uzkuritu dira, urtebete lehenagoko fakturazioarekin alderatuta. Euroguneko kasuan esportazioak %9,4 gutxitu dira, Alemanian bezainbeste. Munduan gutxi dira esportazioen hazkundeari eutsi dioten herrialdeak azken urtean. Horien artean dira Txina edo Irlanda.

Osasun larrialdiak munduko merkataritza aurrekaririk gabeko egoeran jarri du. Jarduera ekonomiko desberdinetan, autogintzan nabarmen, hornigai desberdinen gabeziak gora egin eta merkatu globalaren baitan egituraturiko hornidura-kateen hauskortasuna agerian utzi du.

Munduko ekonomian eta nazioarteko merkataritza fluxuetan osasun larrialdiaz harago doazen aldaketak gertatzen ari diren honetan ataka eta ziurgabetasun egoera berri batean da Euskal Herria, Europar Batasunak bere burua munduan birkokatzeke estrategia definitzen duen bitartean.

Mundua Asiarantz lerratzeak aldaketa sakonak eragiten ditu produkzioaren nazioarteko banaketan eta indartzen ari diren joera sozioekonomikoek balio-kate berrien sorrera hauspotzen dute. Bien bitartean, Txina munduko salgaien prezioa finkatzeko erreferente bilakatzen ari da.




2020 urtean Euskal Herriak munduko herrialdeen hiru laurdenekin izan du hartu-eman komertziala

Harreman horietan, hamarretik zazpik merkataritza saldo positiboa izan du



## 2.4. Ondasun eta zerbitzuen esportazioak

Ondasun eta zerbitzuen esportazioak helmugaren arabera (milioi euro).  
Euskal Herria, 1995/2020 epealdia.



Euskal Herriko esportazioen zati esanguratsu batek Espainia du helmuga, baina azken hamarkadetan menpekotasun hori gutxituz joan da. Garrantzitsua izan zen duela hamarkada bat, atzeraldi betean, euskal enpresek nazioartekotzeko eta merkatu berrietara hedatzeko egindako ahalegina. Frantzia, Alemania, Erresuma Batua eta Belgika lehenetsita Europarekiko hartu-emana estutu zuten, eta, aldi berean, bezero berriak eskuratu AEB, Mexiko, Txina, Turkia, Brasil edo Hegoafrikan.

Hala ere, Euroguneko beste bezeroekin hartu-emana handitu izanak ez du Espainian izandako salmenten gainbehera erabat orekatu. 2020 urtean Euskal Herriko esportazioen %73k Eurogunea izan zuen helmuga. 1995 eta 2008 urteen artean, portzentaje hori %80tik gorakoa zen.

2020an, besteak beste, Hego Euskal Herriko produktu energetikoen eta autogintza produktuen nazioarteko salmenta gutxitu zen. Esportazioen artean ekipo ondasunak (%37), autogintza (%23) eta semimanufakturak (%23) nagusitu ziren beste behin ere.



Ondasun eta zerbitzuen esportazioen hazkunde-tasa, helmugaren arabera (%).  
Euskal Herria, 2008/2020 epealdia.


	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019 (p)	2020 (p)
OROTARA	-5,5	-24,6	17,3	8,5	-7,3	-2,8	3,9	1,3	-0,2	5,7	6,1	2,6	-14,5
Espainia	-16,4	-26,6	10,9	2,1	-15,0	-7,2	-4,0	4,2	1,6	3,1	2,5	3,5	-9,6
Frantzia	6,5	-19,8	17,9	12,0	1,1	-1,9	2,1	4,6	-1,2	4,8	5,0	3,1	-17,9
Alemania	3,8	-22,2	21,3	13,9	-3,7	0,9	4,2	4,3	1,0	7,2	5,8	5,7	-9,0
Erresuma Batua	-1,1	-38,3	31,0	14,2	11,1	-0,8	7,2	2,4	-6,6	8,9	4,7	34,7	-36,4
Gainontzeko Europa	2,7	-20,9	28,9	18,3	-13,3	-3,0	17,0	-1,5	1,1	6,1	12,9	-2,1	-13,6
AEB	31,5	-44,2	19,1	16,3	0,7	7,6	21,9	-1,6	-7,8	16,6	16,0	-8,6	-17,1
Mexiko	-20,4	-9,7	-0,7	41,5	26,7	-15,3	9,9	15,6	-15,5	28,1	1,1	-16,2	-17,3
Gainontzeko Amerika	6,8	-15,9	23,5	46,5	3,3	-6,0	-4,8	3,9	-14,8	13,0	-6,1	9,3	-29,6
Txina	14,3	-38,9	62,3	12,2	-12,9	17,8	19,9	-27,0	25,2	8,8	-16,3	4,4	-11,4
Gainontzeko Asia	14,6	-10,1	30,2	-11,5	7,5	-0,3	13,9	-4,7	3,0	4,6	7,2	-0,1	-13,5
Afrika	48,2	-14,8	0,3	-16,4	35,1	4,4	8,9	-17,3	2,3	-2,4	9,9	12,2	-26,9
Ozeania	36,5	-49,8	69,3	15,5	21,3	153,8	-39,9	-24,9	-9,7	44,3	48,9	-37,9	16,0

(p) Behin-behineko datuak.

Esportazioen balio nominalaren gaineko hazkunde-tasa.

## 2.5. Esportazio eta inportazioen merkataritza-balantza

Esportazio eta inportazioen merkataritza-balantza, lurraldearen arabera (milioi euro).  
Euskal Herria, 1995/2020 epealdia.



2020ko esportazioen gainbehera handia izan zen arren, gehiago balio zuen kanpoan saldutakoak erositakoak baino. Hala, 8.120 milioi euroko aldea ateratu dio saldutakoak erositakoari, eta, Euskal Herriko merkataritza-balantzak saldo positiboa utzi du zazpigarren urtez jarraian.

Eurogunearikiko hartu-emanen ere merkataritza-balantza positiboa izan da zazpi urte horietan, Frantzia, Alemania, Italia, Portugal, Belgika, Herbehereak, Polonia eta Danimarka bezalako bezeroei esker, neurri handi batean. Eurogunetik kanpoko harreman komertzialek joera berdinari segitu diote. Erosketen gainera salmentak nagusitu dira Erresuma Batua, Hegoafrika, Turkia, Australia, Suitza, Israel, Arabiar Emirerri Batuak, Maroko, Txile edo Brasilekiko salerosketetan.



## 2.5. Esportazio eta inportazioen merkataritza-balantza



Zenbait lurralderekiko harreman komertzialean, ordea, Euskal Herriko merkataritza-balantza negatiboa da. Espainia eta Irlandaren kasuan oso nabarmena da aldea: 1.060 eta 495 milioi euro, hurrenez hurren. Maila apalagoan daude Txekiar Errepublika edota Hungaria.

Aipamen berezia merezi du Txinarekiko salerosketen saldo negatiboak, 950 milioi eurora iritsi baita azken urtean (2020). Munduko esportatzaile handienarekiko harreman komertzialaren saldo negatiboaren joera hazkorra aipagarria da. Izan ere, han ekoizturiko ekipo ondasunen (industria makinak, gailu elektrikoak, telekomunikaziorako gailuak...)

eta semimanufakturen (produktu kimikoak, burdina eta altzairua, plastikoak...) erosketak ugaritzen ari dira Euskal Herrian ere. Euskal enpresek nazioartean zein barne merkatuan berrikuntza-intentsitate handiko eta ertain-handiko jardueretan lehia garrantzitsua dute.

Bestalde, produktu energetikoak tarteko, Errusia, Kazakhstan, Taiwan, Libia, Nigeria, Trinidad eta Tobago, Ukraina, Ipar Mazedonia, Kongo, Irak, Mexiko edo Venezuelarekiko harreman komertzialean saldo negatiboa du Euskal Herriak.



### Kanpo merkataritza (BPGaren %).

	2000	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
<b>Esportazioak</b>													
EUSKAL HERRIA	61,7	61,4	52,8	56,7	53,6	52,6	53,6	52,5	50,7	51,7	52,9	52,7	49,6
EB-27	35,7	37,4	40,4	43,2	44,8	45,0	45,8	47,2	46,8	48,5	49,3	49,5	46,8
Katalunia	61,5	49,3	44,4	46,8	49,1	48,6	48,0	47,7	46,1	47,5	47,8	47,4	49,4
Finlandia	42,0	40,3	38,4	38,9	38,8	38,0	36,5	35,4	34,8	37,5	38,4	39,8	35,9
Eskozia	55,0	49,7	52,8	53,9	52,0	52,6	51,9	51,8	51,2	53,7	53,4	52,8	50,8
<b>Inportazioak</b>													
EUSKAL HERRIA	67,8	73,6	51,7	57,0	54,3	53,4	49,7	48,4	42,7	44,7	44,5	44,1	41,6
EB-27	34,9	35,8	38,8	41,5	42,0	41,5	42,0	42,8	42,4	44,2	45,4	45,7	42,8
Katalunia	58,0	52,5	43,5	47,7	48,3	47,3	47,0	47,6	45,6	46,9	48,7	47,8	45,9
Finlandia	32,9	36,3	37,1	39,7	40,4	39,1	37,6	36,0	36,1	37,5	39,7	39,6	35,5
Eskozia	65,9	59,7	59,7	60,1	56,8	58,1	57,3	57,7	57,8	60,4	60,2	60,1	58,8
<b>Merkataritza fluxuen kanpo saldoa</b>													
EUSKAL HERRIA	-6,1	-12,2	1,1	-0,2	-0,8	-0,9	3,9	4,2	8,0	7,0	8,3	8,7	8,1
EB-27	0,8	1,6	1,6	1,7	2,8	3,5	3,8	4,4	4,4	4,3	3,9	3,8	4,0
Katalunia	3,4	-3,2	0,9	-0,9	0,7	1,3	1,0	0,2	0,6	0,6	-0,8	-0,4	3,5
Finlandia	9,1	4,0	1,3	-0,8	-1,6	-1,1	-1,1	-0,6	-1,3	0,0	-1,3	0,2	0,4
Eskozia	-	-10,0	-6,9	-6,2	-4,8	-5,5	-5,4	-5,9	-6,6	-6,7	-6,8	-7,3	-8,0
<b>Ekonomiaren irekiera-tasa</b>													
EUSKAL HERRIA	129,6	134,9	104,5	113,7	107,9	106,0	103,3	100,9	93,5	96,4	97,4	96,8	91,2
EB-27	70,6	73,2	79,2	84,7	86,8	86,5	87,8	90,0	89,2	92,7	94,7	95,2	89,6
Katalunia	119,5	101,8	88,0	94,6	97,4	95,8	95,0	95,3	91,7	94,4	96,5	95,1	95,3
Finlandia	74,9	76,6	75,5	78,6	79,2	77,1	74,1	71,4	70,9	75,0	78,1	79,4	71,4
Eskozia	-	109,4	112,6	114,0	108,7	110,7	109,2	109,5	109,0	114,1	113,7	112,8	109,6

Oharra: Euskal Herriko eta Kataluniako 2019 eta 2020erako datuak behin-behinekoak dira Espainiar estatuarekiko merkataritza hartu-emanaren datuak behin-behinekoak direlako.

## 2.6. Lanaren produktibitatea

Lanaren produktibitatea (euro/mila lanorduko).  
2019 urtea.



Euskal Herrian lan egindako mila lanorduko, batez beste, 45.500 euroko ondasuna sortu zen 2019 urtean. Inoiz kuantifikaturiko produktibitate handiena da hori. Euskal Herriko eskulanaren produktibitatea, erosteko ahalmen parekatuan, Suedia eta Austriaren parekoa da eta EB-27ekoa aise gainditzen du (+4.400 euro). Irlanda da Europan buru.

Milurte hasieratik Euskal Herrian eskulanaren produktibitatea hazkunde positiboan mantendu da, baina hazkunde bizia 2003/2007 epealdian gertatu zen. Gaur egun Euskal Herrian higiezinaren sektorea, finantza eta aseguruaren sektorea, informazioa eta komunikazioak eta manufaktura-industria dira eskulanaren produktibitate handieneko sektoreak.

Lanaren produktibitatea (euro/mila lanorduko).



	2000	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
EUSKAL HERRIA	27.600	33.100	38.800	39.300	40.500	41.500	42.800	43.200	43.500	44.500	44.600	45.500
EB-27	24.500	29.600	33.700	34.700	35.400	36.100	36.600	37.600	38.100	39.200	40.000	41.100
Katalunia	25.900	30.800	35.500	36.000	37.600	38.900	39.600	40.100	40.600	41.000	40.700	41.300
Finlandia	29.400	34.100	38.700	39.800	39.500	39.800	40.200	41.300	42.100	43.900	44.300	-
Eskozia	26.200	31.700	34.800	34.800	36.000	36.300	37.200	39.100	37.600	37.600	39.200	-

Oharra: erosteko ahalmen parekatuan.



## 2.7. Errenta erabilgarria

Errenta erabilgarria batez beste (euro/biztanleko).  
2018 urtea.



Euskal herritarren urteko errenta erabilgarria, batez beste, EB-27koa baino 2.800 euro handiagoa da

Euskal herritar baten errenta erabilgarria, urtean batez beste, 19.500 eurokoa da. EB-27n biztanleko batez besteko errenta erabilgarria, erosteko ahalmen parekatuan, Euskal Herrian baino 2.800 euro apalagoa da (2017). Belgikak edo Norvegiak Euskal Herriaren pareko errenta *per capita* dute. Europan biztanleko errenta erabilgarri handieneko lurraldeak Luxenburgo, Alemania eta Austria dira.

Euskal Herriko errenta erabilgarria gorabidean da milurteko hasieratik, baina 2009/2012 bitartean atzeraldi esanguratsua izan zuen. Batez bestekoak, ordea, errealitate anitz ezkututzen ditu. Errenta-maila ez da berdina izan gizon edo emakume, izan gaztea edo heldua, izan atzerritarra edo bertan jaioa, bizi Debagoienan edo Tuteran. Euskal geografian errenta desoreka handieneko eremuak Euskal Kostaldea-Aturri, Bilbo Handia edo Nafarroako Goi Erribera eta Erribera dira.



Errenta erabilgarria batez beste (euro/biztanleko).

	2000	2005	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
EUSKAL HERRIA	13.400	16.800	17.800	17.800	17.800	17.100	17.500	17.600	18.300	18.600	19.400	19.500
EB-27	11.600	13.400	14.300	14.700	15.000	15.200	15.200	15.600	16.300	16.300	16.600	-
Katalunia	12.600	15.500	16.000	16.000	15.900	15.300	15.600	16.000	16.900	17.200	17.600	17.600
Finlandia	9.600	11.800	14.400	15.000	15.400	15.500	15.600	15.700	16.000	16.200	16.600	17.100
Eskozia	12.700	15.100	15.700	16.000	16.100	16.700	16.700	17.100	17.900	17.400	17.500	18.200

Oharra: erosteko ahalmen parekatuan.

## 2.8. Ikerketa eta Garapenerako gastua

I+G gastua (BPGaren %).  
2019 urtea.



2015 urteaz geroztik, hazkunde ekonomikoak hauspotuta, Ikerketa eta Garapenera (I+G) bideratutako gastua gorabidean da. Hala, I+Gra bideratutako gastuek Euskal Herriko BPGaren %1,88 osatu zuten (2019).

Euskal Herriak I+Gra bideratutako gastu-maila Txekia (%1,94) eta Erresuma Batuari (%1,76) parekoa izan zen. Nolanahi ere, EB-27n I+Gra bideratutako gastua nabarmen handiagoa izan zen, BPGaren %2,20 osatzeraino.

Berrikuntzaren ikuspegitik Euskal Herriak errealitate anitzak biltzen ditu. Gipuzkoa I+G jardueretan BPGaren proportzio handiena inbertitzen duen lurraldea da (%2,4). Euskal Herriko batz bestekoaren azpitik daude: Bizkaia (%1,71), Nafarroa Garaia (%1,70), Araba (%1,23) eta Ipar Euskal Herria (%1,17).



I+G gastua (BPGaren %).

	2000	2005	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
EUSKAL HERRIA	1,1	1,5	2,0	1,9	2,1	2,1	2,0	1,9	1,8	1,8	1,8	1,9	1,9
EB-27	1,8	1,8	2,0	2,0	2,0	2,1	2,1	2,1	2,1	2,1	2,2	2,2	2,2
Katalunia	1,0	1,3	1,6	1,6	1,5	1,5	1,5	1,4	1,5	1,4	1,4	1,5	1,4
Finlandia	3,2	3,3	3,7	3,7	3,6	3,4	3,3	3,2	2,9	2,7	2,7	2,8	2,8
Eskozia	-	1,2	1,4	1,4	1,4	1,4	1,4	1,5	1,5	1,5	1,6	1,7	-





# Demografia

# Ekonomia


# Gizartea

Iturria: EUSTAT, NASTAT, INSEE, Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa eta EUROSTAT. GAINDEGIA.  
Oharra: 2021eko ekainean berrikusitako datuak.



### 3.1. Gutxienez bigarren mailako formazioa duen biztanleria

Gutxienez bigarren mailako formazioa duen biztanleria (%).  
2020 urtea.



25-64 urte bitarteko euskal herritarren hiru laurdenak (%75,1) gutxienez bigarren mailako formazioa du. Milurteko hasieran herritarren erdiak zuen formazio-maila hori. EB-27n proportzioa Euskal Herrikoa baino zertxobait handiagoa da (%79). Besteak beste, Europako herritarren artean ohikoagoa baita goi-formaziokoak ez diren bigarren hezkuntza osteko ikasketak burutzea.

Nolanahi ere, goi-formazioaren hedadura Euskal Herrian Europako garrantzitsuenetarikoa da. Izan ere, euskal herritarren erdiak (%50,8) goi-formazioko ikasketak burutu ditu. Goi-formazioak pareko hedadura du Irlandan, Finlandian edo Luxenburgon, baina EB-27n proportzio hori aise murriztagoa da (%32,8). Euskal Herrian goi-mailako formazioa ohikoagoa da 25-64 urte bitarteko emakumeen artean (%53,3) gizonen artean baino (%48,2).



Gutxienez bigarren mailako formazioa duen biztanleria (%).



	2000	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
EUSKAL HERRIA	49,3	60,0	66,2	66,3	67,2	68,2	68,9	70,0	70,9	71,3	72,0	72,9	75,1
EB-27	-	69,0	72,2	73,0	73,7	74,7	75,5	76,1	76,6	77,2	77,8	78,4	79,0
Katalunia	42,1	51,3	53,3	54,9	55,1	56,1	57,4	58,8	60,4	60,8	62,4	63,7	63,8
Finlandia	73,2	78,8	83,0	83,7	84,8	85,9	86,5	87,7	88,1	88,3	89,2	90,1	91,1
Eskozia	66,8	74,6	77,5	78,6	79,0	79,6	80,9	80,8	80,0	80,5	79,5	80,5	-

Oharra: 25-64 urte bitarteko biztanleria aintzat hartu da.



### 3.2. Herritarren jarduera

Jarduera-tasa (15-64 urte bitartean).  
2020 urtea.



## 2020 urtean jarduera-tasak behera egin du Europako herrialde gehienetan

Euskal Herriko jarduera-tasak behera egin du 2020 urtean (-0,6). EB-27n antzerakoa izan da jaitsiera. Azken urtean Europako herrialde gehienetan jarduera-tasa apaldu egin da. Euskal Herriko jarduera-tasa (%74,1) Portugal edo Esloveniaren parekoa da eta EB-27koa gainditzen du.


Euskal Herrian Nafarroa Behereak du jarduera-tasarik altuena egun (%77,6). Txikiena, aldiz, Araban dago (%71,6). Badira zortzi urte Ipar Euskal Herriko jarduera-tasak hegoaldekoa gainditzen duela. Euskal lurraldean Trebiñu, Argako Haranak, Arabako Mendialdea eta Iruñerria dira jarduera-tasa handieneko eskualdeak.

Jarduera-tasa (15-64 urte bitartean).

	2000	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
<b>OROTARA</b>													
EUSKAL HERRIA	66,0	71,5	73,3	74,6	74,0	73,5	73,8	73,9	74,4	74,2	74,7	74,7	74,1
EB-27	-	68,8	70,3	70,4	71,0	71,3	71,6	71,9	72,3	72,7	73,1	73,4	72,9
Katalunia	70,1	75,0	77,4	78,1	77,7	77,9	77,8	77,6	77,7	77,3	76,8	77,2	75,4
Finlandia	76,8	74,7	74,5	74,9	75,2	75,2	75,4	75,8	75,9	76,7	77,9	78,3	78,3
Eskozia	74,2	76,2	75,7	76,4	76,0	77,0	77,5	78,0	76,8	77,1	77,4	76,9	-
<b>EMAKUMEAK</b>													
EUSKAL HERRIA	53,6	62,1	67,2	69,7	69,2	68,8	69,4	69,6	70,4	70,1	71,3	71,7	70,4
EB-27	-	61,2	63,7	64,0	64,8	65,3	65,8	66,1	66,6	67,1	67,5	67,9	67,5
Katalunia	58,5	65,0	70,8	72,4	72,6	73,0	73,6	73,3	74,0	73,5	72,6	73,5	71,9
Finlandia	74,1	72,8	72,5	72,7	73,4	73,4	73,9	74,4	74,1	74,9	76,3	76,6	76,5
Eskozia	67,3	70,2	71,3	72,2	70,9	73,0	73,7	74,8	73,2	73,5	73,0	73,4	-

### 3.2. Herritarren jarduera

Jarduera-tasa (15-64 urte bitartean).  
2020 urtea.




Emakumeen laneratze formalak jarduera-tasaren indartzea ekarri du milurteko honetan

Milurteko honetan lan esparru formalean murgildutako emakumeen proportzioa inoizko handiena izan da. Emakumeen jarduera-tasak ia etengabe gora egin du eta horrek jarduera-tasa orokorraren indartzea ekarri du. Nolanahi ere, egiturazko genero desorekak arras errotuta jarraitzen dute: etxeko lanak medio formalki ez-aktibitate egoeran direnen %87 emakumeak dira (Hego EH, 2020).

Milurteko berrian EB-27n ere emakumeen jarduera-tasak gora egin du nabarmen, baina Euskal Herrian bezala, azken urtean behera egin du. Euskal Herriko gizonen artean ere jarduera-tasak 2009 urtetik ez zuen halako jaitsierarik nozitzen.

Gizon zein emakumeen kasuan, Euskal Herriko jarduera-tasak EB-27koa gainditzen du, baina Finlandian, Eskozian eta Katalunian baino apalagoa da. Besteak beste, herrialde hauetako belaunaldi gazteen jarduera-tasak Euskal Herrikoa gainditzen du.



Jarduera-tasa, sexua eta adinaren arabera.  
2020 urtea.





### 3.3. Enplegu-maila

Enplegu-tasa (15-64 urte bitartean).  
2020 urtea.



## 2020an enplegu-tasak gora egin du 55-64 urtekoen artean


2020 urtean enplegu-tasa orokorrak 1,8 puntu jaitsi da Euskal Herrian. Jaitsiera hori zertxobait nabarmenagoa izan da emakumeen artean gizonen artean baino. 55-64 urte bitarteko artean ez da enplegu-tasaren jaitsierarik gertatu. Aitzitik, enplegu-tasak gora egin du adin tarte horretan eta milurteko honetan inoizko maila handienean kokatu da (%58,1).

Enplegu-tasa (15-64 urte bitartean).

	2000	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
<b>OROTARA</b>													
EUSKAL HERRIA	58,8	66,3	63,8	65,4	62,7	61,5	62,1	63,3	65,1	65,9	67,2	67,9	66,1
EB-27	-	62,1	63,3	63,4	63,2	63,0	63,7	64,5	65,5	66,7	67,6	68,4	67,6
Katalunia	63,9	69,8	63,7	63,0	60,1	59,8	61,9	63,1	65,5	66,9	67,9	68,6	65,8
Finlandia	68,1	68,4	68,1	69,0	69,4	68,9	68,7	68,5	69,1	70,0	72,1	72,9	72,1
Eskozia	68,5	72,1	69,4	70,2	69,8	71,4	72,8	73,4	72,7	73,9	74,4	74,1	-
<b>EMAKUMEAK</b>													
EUSKAL HERRIA	45,5	57,4	59,5	60,7	58,6	57,4	58,5	59,5	61,0	61,4	64,0	65,0	63,0
EB-27	-	54,6	57,2	57,5	57,6	57,7	58,4	59,2	60,2	61,3	62,3	63,0	62,4
Katalunia	51,3	59,6	59,0	58,9	56,7	56,5	58,8	59,0	61,4	62,8	63,8	65,0	62,2
Finlandia	65,2	66,5	66,9	67,4	68,2	67,8	68,0	67,7	67,6	68,5	70,6	71,8	70,7
Eskozia	63,3	66,9	66,3	67,2	65,6	68,1	70,0	70,9	69,9	70,8	70,5	70,9	-
<b>55-64 URTE BITARTEAN</b>													
EUSKAL HERRIA	36,0	42,5	43,1	45,6	46,2	47,0	49,2	51,4	53,2	53,8	53,8	55,5	58,1
EB-27	-	40,0	44,7	45,9	47,4	48,8	50,5	52,1	54,2	56,1	57,8	59,1	59,6
Katalunia	41,4	48,7	48,6	49,4	48,1	47,5	48,7	50,6	54,1	54,3	56,3	58,1	59,5
Finlandia	41,2	52,7	56,2	57,0	58,2	58,5	59,1	60,0	61,4	62,5	65,4	66,8	67,5
Eskozia	44,7	54,6	55,7	55,7	57,0	59,7	60,7	60,0	61,9	63,2	63,2	63,3	-

### 3.3. Enplegu-maila

Lanaldi partzialaren hedadura-maila (%).  
2020 urtea.




## Lanaldi partzialen 3/4ak emakumeen esku daude

Euskal Herrian lan esparru formalean aritutako emakumeen laurden bat (%26) lanaldi partzialean aritu da (2020). 15-24 urte bitarteko emakumeen artean proportzio hori bikoiztu egiten da ia (%46,6). Adin bereko gizonen artean ere lanaldi partzialen hedadura handia den arren, murriztagoa da (%31,1). Azken bi hamarkadetan lanaldi partzialak nabarmen hedatu dira 15-24 urte bitarteko adin tartean.

25 eta 64 urte bitarteko gizonen artean lanaldi partzialek oso presentzia txikia dute. Emakumeen errealitatea, ordea, bestelakoa da. EB-27 eta Eskozian pareko egoera gertatzen da. Katalunian edo Finlandian, azken honetan batez ere, adin arte horretako emakumeen artean lanaldi osoko enpleguak hedadura handiagoa du.



Lanaldi partzialaren hedadura-maila (%).  
2020 urtea





### 3.4. Langabezia-maila

Langabezia-tasa (15 urtetik gora).  
2020 urtea.



## Langabezia-tasa %9,4koa izan da Euskal Herrian

Azken urtean langabezia-tasak gora egin du, bai Euskal Herrian bai EB-27n. 2014/2019 epealdian Europan langabeziak behera egin badu ere, bere geografia ez da horrenbeste aldatu: Mediterraneoko zenbait lurraldeetan langabeziak nabarmena izaten jarraitzen du. Euskal Herriak azken urteotan EB-27rekiko tartera murriztu arren, langabezia-tasa EB-27 baino 2,4 puntu handiagoa du (2020).


Langabezia-tasa (15 urtetik gora).

	2000	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
<b>OROTARA</b>													
EUSKAL HERRIA	10,9	7,1	10,7	12,1	15,1	16,2	15,5	14,0	12,2	10,8	9,8	8,8	9,4
EB-27	-	9,6	9,9	9,9	10,9	11,4	10,9	10,1	9,1	8,2	7,3	6,7	7,1
Katalunia	8,8	6,9	17,7	19,2	22,5	23,1	20,3	18,6	15,7	13,4	11,5	11,0	12,6
Finlandia	11,1	8,4	8,4	7,8	7,7	8,2	8,7	9,4	8,8	8,6	7,4	6,7	7,8
Eskozia	7,6	5,3	8,2	8,0	8,0	7,2	5,9	5,8	5,1	4,1	3,8	3,5	-
<b>EMAKUMEAK</b>													
EUSKAL HERRIA	15,9	9,1	11,2	12,7	15,1	16,3	15,5	14,3	13,0	12,0	10,0	9,2	10,1
EB-27	-	10,6	10,0	10,2	11,1	11,6	11,1	10,2	9,4	8,5	7,6	7,1	7,4
Katalunia	12,4	8,3	16,5	18,5	21,7	22,4	20,0	19,4	16,9	14,4	12,1	11,5	13,4
Finlandia	12,0	8,6	7,6	7,1	7,1	7,5	8,0	8,8	8,6	8,4	7,3	6,2	7,5
Eskozia	5,9	4,8	6,9	6,9	7,3	6,7	5,0	5,1	4,5	3,6	3,3	3,3	-
<b>IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA</b>													
EUSKAL HERRIA	4,8	1,7	3,3	4,9	6,3	7,4	8,4	7,2	6,1	4,9	4,5	3,3	2,9
EB-27	-	4,5	4,0	4,4	5,0	5,5	5,5	5,0	4,4	3,8	3,3	2,8	2,5
Katalunia	4,2	1,5	7,4	8,9	11,0	12,1	11,4	10,4	8,4	6,3	4,7	4,1	3,6
Finlandia	2,7	2,1	2,0	1,7	1,6	1,7	1,9	2,3	2,3	2,1	1,6	1,2	1,2
Eskozia	2,4	1,2	2,7	2,7	2,9	2,6	2,2	1,8	1,4	1,1	1,0	1,0	-

Oharra: iraupen luzeko langabetu gisa zenbatzeko gutxienez 12 hilabete jarraian langabezia egoeran egon beharra dago.

### 3.4. Langabezia-maila

Langabezia-tasa. 2002/2020 epealdia.




## Gazteek nozitu dute langabezia-tasaren igoera handiena 2020 urtean

Osasun larrialdia hasi zenetik 15-24 urte bitarteko gazteek nozitu dute langabezia-tasaren igoera handiena. Hala, azken urtean langabezia-tasa %30,1koa izan da adin tarte horretan. 15-34 urtekoen artean ere langabezia esanguratsua izan da (%16,9). Euskal Herriak gazteen langabezian du EB-27rekiko arrakala handiena.

Euskal Herrian eta European formazio-maila zenbat eta jasoagoa izan, langabezia-tasa orduan eta murriztagoa da.



2020 urtea.





### 3.5. Pobrezia, 'Europa 2020' estrategiako neurketaren arabera

Pobrezia eta gizarte bazterketa arrisku-maila (%).  
2019 urtea.



Euskal Herrian herritarren %14,2 pobrezia edo gizarte bazterketa arriskuan bizi da (2020). Zifra hori Europako Batzordeak duela hamarkada bat *Europa 2020* strategiapean diseinaturiko adierazleen arabera da. EB-27n proportzio hori nabarmen handiagoa da.

*Europa 2020* strategiako aldagaien artean, lan intentsitate txikiko etxeguneetan bizi den biztanleriaren proportzioa handia izan ohi da Euskal Herriaren ahuluneetako bat. Gaur egun, 0-59 urte bitarteko herritarren %9k egoera hori bizi du (205.300 pertsona).


Pobrezia edo gizarte bazterketa arriskua (%).

	2004	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
<b>Pobrezian edo gizarte bazterketan erortzeko arriskuan dagoen biztanleria</b>													
EUSKAL HERRIA	15,8	13,2	14,2	16,1	17,7	16,7	16,4	15,4	16,7	15,5	14,5	12,7	14,2
EB-27	-	23,7	23,3	23,8	24,3	24,8	24,6	24,4	23,8	23,5	22,4	21,8	21,4
Katalunia	17,7	15,6	19,0	19,8	21,6	22,6	20,1	21,8	19,8	17,9	19,4	18,9	18,8
Finlandia	17,2	17,4	16,9	16,9	17,9	17,2	16,0	17,3	16,8	16,6	15,7	16,5	15,6
Eskozia	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
<b>Oso lan-intentsitate txikiko etxeguneetan bizi den biztanleria</b>													
EUSKAL HERRIA	7,1	6,0	5,4	8,1	8,7	10,2	11,5	11,0	12,2	12,1	7,8	7,4	9,0
EB-27	-	-	-	9,9	10,4	10,2	10,6	11,1	10,5	10,4	9,4	8,8	8,3
Katalunia	4,8	5,2	5,6	9,0	11,6	11,5	10,8	12,0	8,8	7,2	8,8	5,8	8,3
Finlandia	9,5	7,5	8,4	9,3	10,0	9,3	9,0	10,0	10,8	11,4	10,7	10,8	9,7
Eskozia	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-

Oharra: oso lan-intentsitate txikiko etxeguneetan bizi den biztanleriaren unibertsoa 0-59 adin tartera mugatzen da.

### 3.5. Pobrezia, 'Europa 2020' estrategiako neurketaren arabera

Pobrezia eta gizarte bazterketa arrisku-maila (%).  
Euskal Herria, 2004/2019 epealdia.



Euskal Herrian hiriguneetan eta lehen sektorean espezializaturiko eremuetan metatzen da pobrezia

Europa 2020 strategiako adierazleen arabera, euskal herritarren %4,3 gabezi material larrian bizi da (111.400 pertsona). Pobrezia arriskuan bizi diren herritarrek, orotara, 313.100 dira. Halaber, 136.600 herritar bestelako gizarte bazterketa arriskuan bizi dira.

Aipaturiko neurketaren arabera Euskal Herrian pobrezia ez da bereziki handia, baina bere geografia aldatzen ari da. Batetik, lehen sektoreko espezializazioari lotuta, Ebro arroan pobrezia hedadura esanguratsua da, bereziki Tuterako eremuan (NASTAT, 2019). Bestetik, 1960 eta 1970.eko hamarkadetan egituraturako geografia urbanoan pobrezia nabarmenagoa da, Bilbo Handian, Debarrenan, Iruñerrian, Baionako Plateau Saint Etiennen edo Donostialdeko zenbait eremutan, esaterako.



Pobrezia edo gizarte bazterketa arriskua (kopuru gordina). Euskal Herria.



	2004	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Gabezi material larria	46.400	84.800	102.900	78.100	130.600	87.800	123.400	126.900	128.200	127.000	95.500	122.900	111.400
Oso lan-intentsitate txikia	162.700	138.700	125.500	188.600	203.400	237.400	266.200	252.000	280.300	275.400	178.400	167.900	205.300
Pobrezia arriskua	348.100	267.900	302.800	360.900	393.700	377.600	333.800	338.600	340.700	295.600	306.100	287.600	313.100
Bestelako gizarte bazterketa arriskua	122.200	137.100	136.500	136.700	158.800	143.200	180.600	143.600	180.800	190.600	150.300	113.100	136.600

Oharra: oso lan-intentsitate txikiko etxegunetan bizi den biztanleriaren unibertsoa 0-59 adin tartera mugatzen da.



### 3.6. Gizarte babeseko gastua

Gizarte babeseko gastua (BPGaren %).  
2018 urtea.



Euskal Herria European gizarte babesera bideratutako gastu-mailaren azpitik kokatzen da. Ipar Euskal Herriko errealitatea, ordea, bestelakoa da

Euskal Herriak BPGaren %24,3 bideratu zuen gizarte babesera (2018). Urte berean EB-27ko gastu-maila BPGaren %27,9 izan zen. Euskal Herriaren gastu-maila, BPGarekiko proportzioan, Islandia, Portugal eta Espainiaren parekoa da. European Frantzia, Danimarka eta Finlandia dira gizarte babesera diru gehien bideratzen duten herrialdeak.

Euskal Herriaren datu orokorraren atzean, ordea, bi errealitate zeharo desberdin ezkutatzen dira. Ipar Euskal Herrian gizarte babesera bideratutako gastua, Frantziar estatuko gastu-maila bera dela ulertuz, Hego Euskal Herrikoa baino aise handiagoa da. Iparralde eta Hegoalderen arteko desberdintasun horiek bereziki nabarmenak dira gaixotasun eta osasun arretari, zahartzaroari eta familia zein seme-alabei bideratutako gastu-mailari dagokionez.

Gizarte babeseko gastua (BPGaren %).

	2000	2005	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
EUSKAL HERRIA	18,7	19,6	20,7	23,8	24,2	24,2	25,0	25,9	25,4	25,0	24,6	24,4	24,3
EB-27	-	-	26,0	28,8	28,6	28,3	28,7	29,1	28,9	28,6	28,5	28,1	27,9
Katalunia	-	16,5	18,0	21,0	21,1	21,1	21,2	21,2	21,3	-	-	-	-
Finlandia	24,3	25,5	25,0	28,9	29,1	28,7	29,9	31,0	31,7	31,8	31,6	30,6	30,1
Eskozia	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-

Oharra: Nafarroa Garaiko azken datua 2015 urteari dagokio. 2016, 2017 eta 2018 urterako Euskal Herriko datuak horren gainean kalkulatuta daude.





A large crowd of people is gathered outdoors on a grassy area, likely a park or public square. The scene is filled with people of various ages and ethnicities, some wearing face masks. In the background, there are large, leafy trees and a multi-story building with many windows. The overall atmosphere is bright and sunny, with a warm, golden light. The text "Eskerrik asko, Euskal Herria!" is overlaid in white at the top, and the "gaindegia" logo is at the bottom.

Eskerrik asko,  
Euskal Herria!

 **aindegia**



The logo consists of a white square containing a stylized lowercase letter 'g' in a dark green color. The 'g' has a circular dot above it and a curved tail that loops back to the left.

# gaindegia

Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia